

BIZKAITARREN SAREA



BIZKAIARI ETA PARTAIDETZARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA ETA AZKEN BERRIAK

Bizkaiko Foru Aldundiak Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana 2024-2027 aurkeztu du Batzar Nagusietan



Ager Izagirrek, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatuak, pasa den ostiralean, ekainaren 28an, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana 2024-2027 aurkeztu zuen Batzar Nagusietan.

Plan hau partidetza bitartez egin da, honako hauen guztien balorazioak eta proposamenak kontuan hartuz: Bizkaiko toki-entitateak, Bizkaiko Foru Aldundian parte hartzeko dauden organo eta espazio egonkorretako partaide diren eragileak, antolatu gabeko herritarrak, Foru Zuzendaritzak eta Aldundiko langileak.

Plan honek beste urrats bat eman nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak parte-hartzearekin duen konpromisoan, Bizkaia Denontzat Agintaldi Planean "Bizkaia Aldundi sendoa, hurbil eta moderno batekin" ardatzaren barruan jasota dagoena. Ardatz horretan berriaz ezartzen da herritarrek parte hartzeko espazioak eta dinamikak sustatzeko helburua.

Horretarako, Planak 17 jarduera jasotzen ditu, Bizkaian partaidetza sustatzera eta ahalbidetzera bideratuak. Maila kuantitatiboan eta kualitatiboan esanguratsua den partaidetza, Bizkaiko kolektibo, udalerrri eta eskualde guztietara helduko dena, Aldundiaren kudeaketa-dinamika guztietan erabat txertatuta egongo dena, eta Bizkaiko garapen iraunkorrean aurrera egiten jarraitzeko ezinbestekoak diren politika eta zerbitzu publikoei adimen kolektiboaren, adostasunaren, lankidetzaren eta konpromisoaren balio garrantzitsua emango diena.

Bizkaiko Foru Aldundiak 300.000 euro bideratu ditu Bizkaiko toki-entitateek 2024rako sustatu dituzten herritarren eta gizartearen partaidetza-proiektuetara



BIZKAIKO UDALERRI ETA MANKOMUNITATEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK, 2024AN HERRITARREN ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO

1. ARLOA PARTE-HARTZE PROZESUAK	Kostu osoaren %80rako, gehienez 12.000€ eta gutxienez 9.000€.	9mil Mil.	12mil Mil.
2. ARLOA PARTE-HARTZE KANAL DIGITALAK	Kostu osoaren %80rako, gehienez 12.000€ eta gutxienez 9.000€.	9mil Mil.	12mil Mil.
3. ARLOA PARTE-HARTZE FOROAK	Kostu osoaren %80rako, gehienez 6.000€ eta gutxienez 4.500€.	4,5mil Mil.	6mil Mil.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduera bultzatzen ditu Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emanez. Partaidetzarako dirulaguntzak funtsezko tresna dira udalerrietako eta bertako biztaleen bizi-kalitatea hobetzeko eta garapena sustatzeko.

Laguntzak 3 arlotan sailkatzen dira, beren izaeraren arabera:

1. arloa. Proiektuan sartuta dauden udalerrri edota mankomunitatearen garapen iraunkorrerako garrantzitsuak diren herritarren eta gizartearen partaidetza-prozesuak garatzea.

2. arloa. Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko prozesuak garatzea, herritarrekin harreman digitala sustatzeko.

3. arloa. Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko espazio eta organo formalak sortzea, biziberritzea eta hobetzea.

Guztien emakida gardena eta ekitatiboa da, proiektuak ebaluatzeko abenduaren 28ko 213/2023 Foru Dekretuan jasota dauden irizpide argi eta objetiboetan oinarrituta.

Guztira, 58 proiektu aurkeztu dira, horietatik 6 proiektuk eskatutako zenbatekoaren % 80 jaso dute, 15ek % 70, 29k % 60 eta 8 proiektu ezetsi dira deialdian ezarritako baldintzaren bat ez betetzeagatik.

Bizkaiko Foru Aldundiak Partaidetzarako 2020-2023ko Plana ixteko azken txostena argitaratu du

**2020-2023
Herritarren eta
Gizartearen
Partaidetza Plana**

**AZKEN
EBALUAZIOAREN
TXOSTENA**



Txostenaren helburua Partaidetzarako 2020-2023ko Planean aurreikusitako ekintzen betetze-maila jasotzea da. Planean aurreikusitako 14 jardueretatik, 11k (% 79) betetze-maila handia lortu zuten, eta 3k (% 21) betetze-maila ertaina. Ez dago jarduerarik betetze-maila txikia lortu duenik edo gauzatu ez denik.

Planean aurreikusitako jarduez gain, parte hartzeko beste lerro batean aurrera egin zen, hau da, lurraldean Herri Ekimen Arauemailea arautzen duen Foru Araua egin eta onartzean.

2024-2027ko Partaidetza Planean sartzeko jaso ziren gomendioen artean berriazko neurriak sartu ziren kolektibo zehatzen parte-hartzea sustatzeko, bai egokitasunagatik bai partaidetza lurraldeko pertsona guztiengana modu eraginkorrean iristeko beharagatik, hau da, partaidetzaren “sistematizazioari” ekiteagatik. Aldi berean, foru-langileen prestakuntzan eragiten jarraitu zen eta lankidetzan aritzeko eta jardunbide egokiak partekatzeke ekimenetan parte hartzen jarraitu zen.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

**Plentziako eta Gorlizeko badia, 2024ko
BizkaiaGara Egunerako aukeratutako ingurunea**



BizkaiaGara EGUNA2024

Eginez izan · Tiempo de acción



Aurtengo BizkaiaGara Egunak ba dauka lekua eta data ospatzako. Urtero egiten den ekitaldi hau, berriz, Bizkaiko ingurune naturala hobetzeko bideratuko da eta Plentziako eta Gorlizeko Badian egingo da irailaren 22an (igandea).

Inguru hau, toki lasaia izateagatik eta Bizkaiko pertsonak asko estimatzen dutelako, aukeratu izan da 2024ko BizkaiaGara Eguna ospatzeko. Plentzia, Gorliz eta Barriako udalerrietan egongo da.

Ekimen honen helburu nagusia herritarrak aktibatzea eta lurraldearen ingurumen-beharrei modu kolektiboan heltzea da.

INFORMAZIO GEHIAGO



Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa:

Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 13. eta 14. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 11. artikulua beteaz, honako hau jakinarazten dizugu:

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA ETA KONTAKTUA: Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen zuzendaritza nagusia, Kale Nagusia 25, 48009 Bilbo

2.HELBURUA: Bizkaitarren Sarea: partaidetza prozesuak.

3.ESKUBIDEAK EGIKARITZEA: eskubidea duzu tratamenduaren erantzulearen aurretik zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzeko, eta ez izateko banakako erabaki automatizatuen xede, idatzi bat zuzenduz helbide honetara: lege Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala (Kale Nagusia 25-48009 Bilbao). Non:

BFAREN egoitza elektronikoa: <https://www.ebizkaia.eus>

Bizkaiko Foru Aldundiko Erregistro Nagusia (Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoa): Diputazio kalea, 7, 48008 Bilbao.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarrentzako Eskualdeko Bulegoak.

Bizkaiko Foru Aldundiko sailetako erregistro orokorrak

39/2015 Legean aurreikusitako lekuak

Datu pertsonalen babesari buruzko informazio gehigarria lortzeko, sartu esteka hauetan:

[Newsletter](#) eta [Partaidetza prozesuak](#)